



**Arartekoaren ebazpena, 2008ko irailaren 15ekoa. Horren bidez, Gasteizko Udalari iradokitzen zaio erroldatzeko baldintzei eta eskubideari buruzko informazioa hobetu dezan; eskaera idatziz aurkeztu dezan; eta gizarte bazterkeria jasateko arriskuan dauden pertsonen, erroldan izena emateko edo mantentzeko zailtasunak kontuan hartzen dituen jarduera protokoloa landu dezan.**

### Aurrekariak

1. Pertsona batek erakunde horretara jo zuen, udalerriko erroldan, izena emateari buruz eta horrek gizarte laguntzen errekonozimenduan dituen ondorioei buruz, udalak izandako jarduera zela eta.

(...)ek denboraldi bat zeraman lanik egin gabe eta 2007ko apirilean udalera jo zuen gizarte laguntza eske. (...) jauna 2003. urtean ostatu batean bizi zen eta gelatik alde egin behar izan zuen jabeak eskatzen zion diru kopurua ezin zuelako ordaindu. Horren arrazoia izan zen, urte hartan adostu ziren gizarte behar larrietarako laguntzak gutxitu egin zituztela. Orduan (...) Kanpinean hasi zen bizitzen. Udalak adierazi zion ez zuela erroldan izena emana, eta, horrenbestez, ezin zituela gizarte laguntzak jaso. Erroldan ofizioz baja eman ziotela jakin zuenean, berriro izena emateko behar ziren baldintzei buruzko informazioa eskatu zuen. Errolda Zerbitzuak adierazi zion kanpineko jabeak emandako baimena aurkeztu behar zuela. (...) jaunak ezin izan zuen baimena aurkeztu, hileko errenta ez ordaintzearen zorra zeukalako. Hala ere, kanpineko beste biztanleek deklaraturakoa aurkeztu zuen, eta 2004tik kanpinean bizi zela ziurtatu zuten. Errolda Zerbitzuak ez zuen bere izena eman 2007ko irailera arte, orduan aurkeztu baitzuen baimena, kanpineko jabeari zor zion diru kopurua ordaindu ondoren.

2. Erakunde horrek, kexa hori behar bezala izapidetze aldera, udalari erroldako baja espedienteari buruzko informazioa eskatu zion. Halaber, gizarte zerbitzuek garai hartan, erabiltzaileari egindako jarraipenaren espediente, eta udalak pertsona hori udal erroldan atzera eraginez ez inskribatzeko izan zituen arrazoiak, Gasteizen bizi dela dakienetik.

Udalak honakoa erantzun du:

*"El Sr. (...) ha figurado inscrito en Vitoria-Gasteiz desde su nacimiento y desde el 12.09.2002, en un establecimiento colectivo. El responsable de dicho establecimiento comunicó a Ayuntamiento el 05.05.2004, que esta*



*persona ya no residía allí, por lo que desde el Servicio de Padrón y al amparo del citado art. 72 (del Reglamento de Población y Demarcación Territorial), con fecha 12.11.2004 se comunicó al interesado la incoación del expediente de baja por inscripción indebida, nº 2004/335-68-9, concediendo un plazo de diez días para presentar alegaciones.*

*Esta comunicación fue devuelta por el Servicio de Correos, por lo que la misma se realizó a través de su publicación en el BOTHA, de fecha 07.02.2005, concediendo un nuevo plazo de alegaciones, sin haber obtenido contestación del interesado. Con fecha 16.06.2005 se dictó Resolución del Concejal-Delegado acordando la Baja por Inscripción Indebida, previo informe favorable a la misma emitida por el Consejo Provincial de Empadronamiento.*

*Respecto a los motivos por los que el Ayuntamiento no inscribió al ciudadano en abril de 2007, hay que señalar que el domicilio donde pretendió su empadronamiento –el Camping (...)- tiene la consideración de ‘colectivo’ por lo que es preceptiva la autorización de la persona que ostente la dirección del mismo, como señala el apartado 3 ‘Comprobación de Datos’ de la Resolución de 4 de julio de 1997, conjunta de la Presidenta del Instituto Nacional de Estadística y del Director General de Cooperación Territorial, para que se dictan instrucciones técnicas a los Ayuntamientos sobre actualización del Padrón Municipal.*

*El otro punto sobre el que se ha solicitado informe se trata de la retroactividad de la inscripción y a este respecto cabe señalar que el tipo de alta consignado al Sr. (...) el 4 de septiembre de 2007, cuando cumplió los requisitos para la misma, lo fue como “Alta por Omisión” tras comprobar que no figuraba inscrito en ningún otro Padrón y que según determina la Resolución de 9 de abril de 1997 conjunta de la Presidenta del Instituto Nacional de Estadística y del Director General de Cooperación Territorial por la que se dictan instrucciones técnicas a los Ayuntamientos sobre la gestión y revisión del Padrón Municipal, ‘los efectos administrativos de este acto se producen desde el momento en que el vecino solicita la inscripción. Y la única solicitud que consta es la formalizada el día 4 de septiembre de 2007’.”*

3. Udaleko Gizartegintza Sailak laguntza ematen dio langabezian dagoen bitartean, eta beraz, inskribatua ez egoteak, ez du gizarte laguntzen errekonozimenduan eraginik izan.



Hori guztia ikusita, kexan adierazitakoa eta jasotako gogoetetan eta informazioan esandakoa aztertu ondoren, egokia iruditu zaigu zuri honako gogoeta hauek helaraztea:

### Gogoetak

1. Kexen azterketan baloratzen da, nagusiki, eta lehenik eta behin, kexa espedientearen xede den Administrazioaren jarduerak, ordenamendu juridikoarekiko egokiak ote diren. Espedienteko informazioa eta dokumentazioa aztertu ondoren, ondorioztatzen dugu ez dela, legearen aldetik, jarduera desegokirik izan: Udala pertsonaren beharrez arduratzen ari da ikuspegi sozialetik. Gizartegintza Sailak (...) jauna lagundu du baliabideak eskainiz, langabezia dela eta jasaten duen egoera larria izan arren, biziraun dezan. Errolda Zerbitzuaren jarduerak lege babesa dute: Udalak erroldan baja emateko agindu zuen, ez zelako inskripzio orrian adierazitako helbidean bizi. Erroldako inskripzioa egin da, eskaera formala aurkeztutakoan, "Omisio bideko lzen ematea" modalitatean, 1997ko apirilaren 9ko Ebazpenean Estatistikako Institutu Nazionalaren presidentek eta Lurralde Lankidetzako zuzendari nagusiak zehazten duten moduan. Horren bidez, udal errolda kudeatzeko eta berrikusteko jarraibide teknikoak ematen zaizkie udalei.
2. Arartekoaren eginkizuna ez da soilik lege arloko betebeharrak gogoraraztea. Herritarren beharrei eskaintzeko zerbitzu eta arreta hobea lortzeko proposamenak ere egin ditzake. Horri "gobernu ona" deritzo. Premisa horren arabera, zerbitzu eta prestazio publikoekiko konpromisoa sustatu beharko litzateke. Horrek ekartzen du, herritarrei arreta eta kalitatezko zerbitzua eskaintzea, eta baita gizarte premiei erantzuteko jarduera praktikoak burutzea ere. Honako gogoeta hauek zerikusia dute Arartekoaren funtzioarekin, alegia, zerbitzu publikoak hobetzea sustatzearekin; zehazki, administrazio informazioa hobetzearekin.
3. Administrazio informazioa faktore garrantzitsua da sistema demokratikoetan, herritarrei beren eskubideak eta betebeharrak ezagutzeko aukera ematen baitie, eta baita ondasun eta zerbitzu publikoak erabiltzekoa ere. Horrekin lotu nahi dena da, alde batetik, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legearen 35. artikulua edukiz hornitzea. Lege horrek ezartzen du, herritarrek egin nahi dituzten proiektu, jarduera edo eskaeren inguruan, indarreko xedapenek ezartzen dituzten baldintza juridiko edo teknikoari buruzko informazioa eta orientazioa eskuratzeko eskubidea. Bestalde, Tokiko Araubidearen Oinarriaren Legearen 18.





artikulua ere edukiz hornitu nahi da. Lege horrek ezartzen ditu bizilagunek informazioa jasotzeko duten eskubidea eta udal administrazioari eskaerak egiteko duten eskubidea.

Kexagileak 2007ko apirilan dalari informazioa eskatu zion, udal erroldan izena eman ahal izateko. Udalak adierazi zion (...) Kanpineko zuzendariaren baimena izatea nahitaezkoa zela, "izaera kolektiboa" duelako. Informazio hori 3. instrukzioan oinarritzen zuen: 1997ko uztailaren 4ko Ebazpeneko datuen egiaztatzea, Estatistikako Institutu Nazionaleko lehendakariak eta Lurralde Lankidetzako zuzendari nagusiak emandakoa. Ebazpenak Udal Errolda eguneratzeko udalentsako argibide teknikoak ezartzen ditu (BOE, 2007-07-25ekoa).

Informazio hori zuzena da, baldin eta pertsona horrek establezimendu kolektiboko jabearen baimena eskuratzen badu. Arazoa dator, pertsonak, udalerrian bizi den arren, baimena aurkeztu ezin duenean.

TAOLren 15. artikulua dioenez: *"Espainian bizi den pertsona oro behartuta dago ohiko bizilekua duen udalerriko erroldan izena ematera. Hainbat udalerritan bizi denak urtean denbora gehien ematen duen horretan eman behar izango du izena"*.

Erroldaren araudiak ezartzen du, erroldan izena eman nahi duten pertsonak inskripzioa egin ahal izateko, udalak Biztanleriaren eta Lurralde Mugapenaren Araudiaren (BLMA) 57. artikuluan aurreikusten diren datuak jaso behar dituela, eta benetakoak diren egiaztatu, BLMAren 59.2. artikulua. 1997. urteko uztailaren 14ko Ebazpenaren 3. Instrukzioan, udalei erroldak eguneratzeko jarraibide teknikoak ematen zaizkie. Artikulu horretan aurreikusten da udalaren ahalmena norainokoa den, beti ere, kontuan hartuta, nagusitu behar den araua BLMAren 17.2. artikulua baitan dagoena dela: *"Udalek erroldak eguneratuta izateko behar den guztia egin behar dute, bertan jasotako datuak errealtatearekin bat etor daitezen"*.

3. Instrukzioak honakoa dio:

*"El Padrón es el registro administrativo que pretende reflejar el domicilio donde residen las personas que viven en España. Su objetivo, es por tanto, dejar constancia de un hecho, por lo que, en principio, no debe resultar distorsionado ni por los derechos que puedan o no corresponde al vecino para residir en ese domicilio, ni por los derechos que podrían derivarse de la expedición de una certificación acreditativa de aquel hecho."*



*En consonancia con este objetivo. La norma fundamental que debe presidir la actuación municipal de gestión del Padrón es la contenida en el artículo 17.2 de la Ley de Bases de Régimen Local: Realizarán las actuaciones y operaciones necesarias para mantener actualizados sus Padrones de modo que los datos contenidos en éstos concuerden con la realidad.*

*Por ello, las facultades atribuidas al Ayuntamiento en el artículo 59.2 del Reglamento de Población y Demarcación Territorial de las Entidades Locales para exigir la aportación de documentos a sus vecinos tiene como única finalidad comprobar la veracidad de los datos consignados, como textualmente señala el propio artículo.*

*En consecuencia, tan pronto como el gestor municipal adquiera la convicción de que los datos que constan en la inscripción patronal se ajustan a la realidad, deja de estar facultado para pedir al vecino ulteriores justificaciones que acrediten aquel hecho.*

*Y, en concreto, la posibilidad de que el Ayuntamiento solicite del vecino el título que legitime la ocupación de la vivienda (art.59.2 del Reglamento), no atribuye a las administraciones locales ninguna competencia para juzgar cuestiones de propiedad, de arrendamiento urbanos o, en general, de naturaleza jurídico-privada, sino que tiene por única finalidad servir de elemento de prueba para acreditar que, efectivamente, el vecino habita en el domicilio que ha indicado.*

*Por ello, este título puede ser una escritura de propiedad o un contrato de arrendamiento, pero también un contrato de suministro de un servicio de la vivienda (agua, gas, electricidad, teléfono, etc.) o **incluso, no existir en absoluto** (caso de la ocupación sin título de una propiedad ajena, sea pública o privada. En este último supuesto, el gestor municipal debería comprobar por otros medios (Informe de la Policía Local, inspección del propio servicio, etc.) que realmente el vecino habita en ese domicilio, y en caso afirmativo inscribirlo en el padrón, con completa independencia de que el legítimo propietario ejercite sus derechos ante las autoridades o Tribunales competentes, que nunca serán los gestores del padrón*

*Cuando un ciudadano solicite su alta en un domicilio en el que ya consten empadronadas otras personas, en lugar de solicitarle que aporte el documento que justifique su ocupación de la vivienda, se le deberá exigir la autorización por escrito de una persona mayor de edad que figure empadronada en ese domicilio.*



*Si, con ocasión de este empadronamiento, la Administración municipal advirtiera que las personas que figuran empadronadas en ese domicilio lo han abandonado, aceptará el empadronamiento de los nuevos residentes en la vivienda conforme al procedimiento ordinario, y , simultáneamente, iniciará expediente de baja de oficio en su Padrón de las personas que ya no habitan en ese domicilio. Esa circunstancia podrá hacerse constar en el apartado observaciones de la certificación que pueda expedirse a instancia de los nuevos empadronados.*

*Y cuando el alta de se produzca en un establecimiento colectivo (residencias, conventos, etc. la autorización deberá ser suscrita por la persona que ostente la dirección del mismo. En estos casos se hará constar en el apartado tipo de vivienda, de la hoja patronal la mención colectivo. En los demás casos, el tipo de vivienda es familiar.*

*La facultad municipal de comprobación de los documentos que acrediten otros datos del empadronamiento (número del documento nacional de identidad, titulación escolar, etc.) deberá ejercitarse conforme al mismo criterio de exigir su aportación en la medida en que sea necesaria para adquirir la convicción de la veracidad de los datos consignados.*

*Por otra parte, como anteriormente se ha señalado, la obligación primaria del gestor patronal es el mantenimiento y actualización de la información contenida en el padrón. La Ley (artículo 17.1) y el Reglamento (artículo 63) prevén la colaboración de otras administraciones públicas para ayudar a los Ayuntamientos en esta misión, pero esta previsión en ningún caso sustituye aquella responsabilidad municipal, por lo que no hay duda de que los Ayuntamientos no deben esperar a la recepción de la información que puedan suministrarle otras Administraciones para actualizar cuantas variaciones se produzcan el la información padronal y de las que tengan conocimiento por cualquier otro medio”.*

Horren ondorioz, establezimendu kolektiboko zuzendariak sinatutako baimenak balio du jasotako datuen egiazkotasuna lortzeko, baina ez du udal erroldan izena ematea eragiten. Hau da, dokumentu horren helburua herritar hori benetan adierazitako helbidean bizi dela egiaztatzea da. Baina titulurik ez badago, udal kudeatzaileak beste bitarteko batzuk erabili behar izango ditu herritarra benetan etxebizitza horretan bizi dela egiaztatzeko (udaltzaingoaren txostena, zerbitzuaren inspektzioa, etab.), eta egia bada, erroldan izena emango du.





Erroldan izena emateak udalerriko ohiko bizilekuarekin du zerikusia. Horregatik, etxerik gabeko pertsonak ere erroldatzeko aukera dute, erroldak herritar bakoitza benetan non bizi den adierazten baitu. Aipatutako ebazpenaren 4. instrukzioak honakoa aurreikusten du:

Egiaztatzeko betebeharrak eta ahalmen horrek helburutzat du erroldaren eta errealtatearen arteko desadostasuna ekiditea. Errolda administrazio erregistroa da, udalerrian bizi diren pertsona guztien bizilekua eta inguruabarrak jasotzea bakarrik da bere funtzioa. "Administrazio informazioaren" erregistroa da, helburu gisa administrazio publikoei beren funtzioak modu eraginkorrean garatzea errazteko informazioa ematea duena.

TAOLren 16. artikulua zera dio: *"udal errolda administrazio erregistro bat da eta hor daude jasota udaleko herritarrek. Bertako datuek frogatzen dute udalerrian bizi direla eta bertan dutela ohiko bizilekua. Datu horiekin egiten diren egiaztapenak agiri publiko eta fede-emaileak izango dira ondorio administratibo guztietarako"*.

Udala behartuta dago udalerrian bizi diren pertsonen erroldan izena ematera. TAOLren 17.2 artikulua araberak: "Udalek erroldak eguneratuta izateko behar den guztia egin behar dute, bertan jasotako datuak errealtatearekin bat etor daitezten". Pertsona batek udal erroldan izena emateko bete beharreko baldintza, ez da bizitzeko etxebizitza izatea, **baizik eta normalean udalerrian bizitzea**.

Jasotako informazioa ez zen guztiz zuzena izan, erroldan izena emateko baldintza ohiko bizilekua izatea baita, eta hori, establezimendu kolektiboko jabearen baimena eskuratzea baino, beste bitarteko batzuk erabilita ere egiaztatu daitezke. Hori dela eta, normalean udalerrian bizi den pertsonak erroldatzeko duen eskubidea kontuan hartzen duen informazioa, nahiz eta esku artean frogagiririk ez izan, gaiaren inguruan indarrean dagoen lege araudiarekin gehiago bat etortzen da.

Erakunde horren iritziz, herritarrei erroldatze baldintzei buruz ematen zaien informazioa hobetzea garrantzitsua da. Udaleko gizarte zerbitzuek pertsona horri modu zabalean erantzun dioten arren, erroldan izena emateak eskubide gehiagotan du eragina. Besteak beste, herrian eta politikan parte-hartzean, eta bestelako gizarte eskubidetan; hala nola, osasun txartela eskuratzea edo etxebizitza zerbitzu publikoan izena ematea.





4. Erroldan alta emateko berriazko eskaera bakarra 2007ko irailan egin zen. Hortaz, udalak adierazten duen moduan, erroldan izena ematearen eraginak, inskripzio eskaera erroldan formalizatu zuenetik baino ez dira hartuko kontuan. Ziur asko, interesdunak erroldan inskripzio eskaera idatziz egiteko eskubidea zuela jakin izan balu, aurretik aurkeztuko zukeen. Horregatik, garrantzitsua iruditzen zaigu, aldeztu aurretik, eskaera idatziz aurkezteko aukeraren berri eman izan balitzaio.

Bestalde, udaletxearen eskutik jasotzen duten informazioarekin erroldatu ezin diren pertsonak, bizilekuko frogagiriak aurkezteko arazoak dituzte; hau da, gizarte bazterkeria jasateko arriskuan dauden pertsonak dira, kasu horretan gertatzen den moduan. Horrelako egoeratan, jarduera protokoloaren aurreikuspenak gizarte zerbitzuen esku-hartzea kontuan izango balu, erroldan izena emateko betebeharra eta eskubidea konpliztea erraztuko luke. Hori eginez gero, pertsona batek bizilekua mantentzeko edo eskuratzeko arazoak dituenean, Gasteizen bizitzen jarraitzen duen artean, ez luke baja emango edo ez luke bere burua inskribatu gabe utziko.

Hori guztia dela eta, erakunde hau sortzen eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legean ezarritakoarekin bat etorritik, honako iradokizun hau egiten da:

### **3/2008 IRADOKIZUNA, irailaren 15ekoa, Gasteizko Udalarari egina**

- Udalerria ohiko bizilekutzat duen pertsonak, erroldan izena ematearen baldintza eta eskubideei buruz jasotzen duen informazioa hobetu dezan.
- Pertsonarentzat udalerria ohiko bizilekua bada, eta ezin baditu etxebizitzan bizi dela egiaztatzen duten frogagiriak aurkeztu, idatzizko eskaera aurkezteko aukera eman dezan.
- Errolda Zerbitzuak eta Gizartegintza Sailak, jarduera protokoloa landu dezan, horretarako gizarte bazterkeria jasateko arriskuan dauden pertsonak erroldan inskripzioa egiteko edo mantentzeko garaian dituzten arazoak kontuan hartuta.

